



Aurpegi ezagunen ikuspegia

# Euskaltzale batzuen ustez...



ARANTZAZU LOIDI

Bertsolaria

**1.** —Bai, uste dut joango naizela.

**2.** —Bai, nik ikusten dut oso nabarmen bihurtu dela zita edo erreferentzia leku bat eta hori inportantea da. Baina, era berean, eta hau da kezagarriena, erderaz hitz egiteko zita leku ere bihurtu dira festa hauek. Jende asko joaten da helburua ahaztuta eta edozein herritako jaietara joango litzatekeen moduan. 'Vamos a Kilometroak' esaten dute. Hau niretzat beldurgarria da eta jende askok joateari uzteko arrazoia dela ere iruditzen zait. Beraz, oso egoki ikusten dut hasierako filosofia horretara bueltatzea, jendeak ibiltzeari garrantzia ematea eta abar. Jendeak dirua eman behar du, baina atzetik edo oinarrian zer dagoen jakinda. Ibilbidearen sarreran dirulaguntza ematea, ibiltzea... hori guztia oso inportantea iruditzen zait.

**3.** —Ahalginduko naiz zirkuituari buelta osoa ematen, baina askotan zaila da, gutxitan ikusten dituzun lagunekin egiten duzula topo. Normalean, norekin noan, aukeratu egiten dut zer ikusi edo nora jo. Bestela, betikoa egingo dut, zirkuitua ezagutu, ikastola horrek bereziki antolatutuen gauzak ikusi, beti izaten da leku bakoitzeko berezitasunen bat eta ondo pasatu, jakina. Ondo pasatu, baina jakinda atzetik edo oinarrian zer dagoen. Bukatzeko jende guztia ibiltzera, ibilbidea osatzera animatuko nuke.

*Kilometroaz kilometro, Gipuzkoako ikastolen aldeko festak 18. urratsa egingo du gaur Legazpin. Urte guztiotan zehar filosofia edo jarrera aldaketarik izan dela sumatu dute antolatzaileek eta oinarrietara itzultzea bihurtu da edizio honetako helburu nagusietako bat. Jende ezagunari galdetu diegu honi buruz eta, bide batez, festa hauetan zer egin obi duten ere jakin dugu.*

- 1.** Kilometroak ospatzera Legazpira joateko asmorik ba al duzu?
- 2.** Antolatzaileek hasierako filosofia berreskuratu beharra aipatu dute. Somatu duzu zuk filosofia aldaketarik 18 urte hauetan?
- 3.** Joanez gero, zer egingo duzu gaur Legazpin?



XABIER KINTANA

Euskaltzaina

**1.** —Nire asmoa bertan egotea da, bai. Lanak ez badit aparteko ozioparik jaritzen, Legazpira joango naiz.

**2.** —Hasierako filosofia bada euskaldun guztiok ikastolen eta euskararen alde aukera politikoen gainetik borrokatzea ni horrekin guztiz ados nago. Aldiz, ikastola sare homologatutik kanpoko zerbaizat, ofizialtasunari tiraka heldutako zerbaiz bezala hartuta ikusten badute, ni ez nago horrekin ados. Autonomia daukagun neurrian, gure hizkuntza eta irakaskuntza homologatzeko aukera ematen digu. Ez dut oso ondo ulertzen zer esan nahi duten. Dena den, guztiok hartu behar dugu gure gainean euskararen ardura, eta horren alde egin.

**3.** —Ibilbidea egingo dut, eta inguru guztiak ikusiko ditut. Horrelakoetan gainera aukera ona izaten da aspaldiko lagunak ikusteko. Poza ematen du euskararen inguruan ideologia bera daukaten pertsonak ikustea, nolabait horrek sendotu egiten zaitu zeure ideologian, batez ere, ni bezala, giro euskaldun bizi ez bazara.



ANDONI AIZPURU

Telista aurkezlea

**1.** —Ez naiz joango. (Ondoren erantzungo digu gabiriarrak zergatik).

**2.** —Euskararen alde eta euskararen lotura duten festa guztien alde nago, horretan ari gara gu guztiok lanean, eta festa horietan guztietan inoiz izan naizen arren nahiko desengainatua bueltatzen naiz beti eta batipat euskaldunei, euskaraz dakitenei, zuzendu nahi diet nire kritika-txoa. Kilometroak-en alde izugarriko lana egin eta gero urte osoan ahaztu eta erdara jotzen dugu sarri askotan. Gertuko jendearekin ere behin baino gehiagotan gertatu izan zait, kilome-

troetara joan, bisera eta pegatina erosi, baina itzuleran 'hemos estado en Kilometroak' entzun beharra. Hori ezin dut jasan, izugarriko amorrua ematen dit. Hala ere, onartzen dut festa horiek gizarterako gauza on asko ere badituztela, batasun bat lortzen delako euskararen inguruan, baina lehen aipatu dudanagatik deseingainatuta nago erabat festa hauekin.

Gainera, bestetik masifikazio handiak ez zaizkit batere gustatzen, ahalegintzen naiz beti ihes egiten. Nire ustez euskararen aldeko lan hori egunegun egun egin beharreko gauza da.

Filosofia aldaketari dagokionez, gizartea bera ere aldatu egin da nire ustez. Azkenaldi honetan jende asko joaten da euskararen alde lan egitera, beste asko desmadratzera eta ongi pasatzera... Baina behar bada, bai, hasierako helburu hori galdu egin da zertxobait, eta jendearen gehiengoaren joaten den bezala. Festa kutsua behar da, duarrik gabe, baina era berean, jendeari gogorarazi egin behar zaio urtean behin euskararen alde egitea ez dela nahikoa, egunegun egin behar da euskararen aldeko lan hori.



TXEMA VITORIA

Pailazoa

**1.** —Oraindik ez dakigu ziur joango garen edo ez, ikusiko dugu.

**2.** —Beno, niri gehiago gustatzen zait euskaldunen arteko festaren ideia hori, dirua eta tartean sartu gabe. Ez dakit festa merkantilista bihurtzen ari ote den edo ez, baina mundua gaur egun horrela dago eta dirua behar da denetarako. Nire ustez neurria bilatu behar da festa hutsaren eta dirulaguntza izango den horren artean.

**3.** Zirkuituari bueltatxo bat eman, jende ezaguna agurtu eta goiz edo arratsalde ona pasatzea.

Arantzazu Loidi: «Erdaraz hitz egiteko zitaleku ere bihurtu dira festa hauek; hau niretzat beldurgarria da eta jende askok joateari uzteko arrazoia dela ere iruditzen zait».

Andoni Aizpuru: «Festa kutsua behar da, baina era berean, jendeari gogorarazi egin behar zaio urtean behin euskararen alde egitea ez dela nahikoa, eguneroko lana da hau».

- ★ Urtean zehar Amasako estudioan
- ★ berrian egindako grabaketa
- ★ eta nahasketak

-NEGU GORRIAK  
-AMOR A TRACION  
-ETSAIAK  
-BITTOR AIAPE  
-GUERRILA URBANA  
-NAFARROA OINEZ 94  
-LAJA eta LANDAKANDA  
-BAP  
-TIJUANA NO  
-CANCER MOON

Atzo  
Gaur  
Bihar

GRABAZIO  
ESTUDIOA



Durangorako  
Berrikuntzak

-BIZKAR HEZURRA  
-TXIRRI MIRRI eta TXIRIBITON  
-ANDONI EGAÑA  
-JOSE INAZIO ANSOENA  
-TTURRUTAK

GESAI, S.A.



HIRIGINTZA SUSTATZEKO  
KUDEAKETA

Jai zoriotsuak opa dizkizuegu

Errotoburu 1-9  
D O N O

Tf.: 31 12 17 / 31 12 18  
S T I A

**Aurpegi ezagunen ikuspegia**



**PAKO ARISTI**

Idazlea

**1.** —Ez, ezin dut joan kanpoan egongo naizelako. Hemen egongo banintz joango nintzen.

**2.** —Ez dakit, nik ez nuen hasierako filosofia hura ezagutu artean kozkorra bainintzen. Dirua lortzera zuzendu dutela dena eta beste balore batzuk aldera utzi? Dirua ere ezin da ahaztu, baina barruko baloreak gehiago landu beharra, hori ondo iruditzen zait. Hala ere, eta nik ere entzun eta irakurri dut hasierako filosofia berreskuratu behar hori, baina ni artean gaztea nintzen eta ez badute esplikatzen zein ziren hasierako filosofiaren oinarriak, ba ez dakit. Nire ustez memoria historiko hori agertu beharko lukete gazteoi esplikatzeko behintzat.



**MIREN AZKARATE**

Euskaltzaina

**1.** —Bai, joango naiz ziurrenik.

**2.** —Azken urteotan sarrerara iritsi, dirua eman eta pixka bat gelditu ondoren berriro joan egiten omen zen jendea, eta filosofia aldaketa, nik ulertu dudanez, jendea ibiltzen eta kilometroak egiten ikuste da. Filosofia esaten denean, beste ikuspegi bat ere egon daiteke: garai hartan mugimenduak zuen indarra, ez dakit

gaur egun bere horretan dagoen: Euskal Eskola Publikoaren legea etorri da, ikastolak batean edo bestean gelditu dira eta alde horretatik egoera aldatu egin da.

**3.** —Joaten naizenean ez naiz 'ofizialki' esaten dena joaten, hau da, beste edozein euskaldun bezala joaten naiz familiarekin. Behin sartuta, guk lehengo izpirituari eusteko ahalegina egiten dugu eta zirkuitua behin behintzat osatu, oso-oso eguraldi txarra egiten ez badu bederen, horixe egiten dugu normalean. Eta diru pixka bat utzi, nola ez.



**TXILLARDEGI**

Idazlea

**1.** —Bai asmoa badut joateko, ziur-ziur ez dakit, baina asmoa behintzat badut.

**2.** —Nik uste dut gauzak hoztu egin direla, jendea, oro har, hoztu egin da. Orain dela 20 urte, eman dezagun, jendeak hizkuntza berreskuratzeke zeukan ilusio hori galdu egin da zertxobait. Momentu honetan mistika hori geratzen da, baina geratzen da oso sektore ezagunetan. Normalizazio famatuak hori ekarri du nolabait, badirudi hizkuntzaren asuntua likidatua dagoela eta zentzu horretan iruditzen zait atzera egin dugula. Euskararen aldeko jarrera hori, nire ustez, zabalagoa zen lehen; orain, aldiz, jende baliotsuarekin baina lokalizatua dago. Kopuru aldetik jende gutxiago garena uste dut.

**3.** —Betiko gauzak. Zirkuitua egin, jende euskaltzalea ikusi... ez dakit. Gero, urtero bezala, Ingeniarren Kolegioak partaide garenok zirkuitua osatuz gero, diru kopuru bat ordaintzen duenez, aurten ere egin beharko dugu ahalegintxo.

**Xabier Kintana:** «Poza ematen du euskararen inguruen ideologia bera daukaten pertsonak ikusteak, horrek sendotu egiten baitzaitu zeure ideologian».

**Pako Aristi:** «Nire ustez memoria historiko hori agertu beharko lukete gazteoi esplikatzeko behintzat».

**Miren Azkarate:** «Behin sartuta, guk lehengo izpirituari eusteko ahalegina egiten dugu eta zirkuitua behin behintzat osatzen dugu».

**Txillardegi:** «Orain dela 20 urte, eman dezagun, jendeak hizkuntza berreskuratzeke zeukan ilusio hori galdu egin da zertxobait».

**F. Iñurrategi:** «Dirua ateratzea inportantea iruditzen zait, beharra dagoelako eta nolabait kritikatu egiten delako behar horren arrazoia».



**FELIX IÑURRATEGI**

Mendigoizalea

**1.** —Bai, bai, joango nauk.

**2.** —Etzekiat, ni ez nauk inor hori esateko. Kritika egin ahal zaiok ikuspegi merkantilista alde horretatik, baina hasieratik helburu nagusietako bat djrua ateratzea huen. Eta orain egin behar badiagu jai bat erreibindikazio hutsagatik ez zekiat mereziko ote duen hainbesteko ahaleginak. Niri dirua ateratzea inportantea iruditzen zaidak, batetik beharra dagoelako eta bestetik nolorebait kritikatu egiten delako behar horren arrazoia.

**3.** —Lehenengo jarritako obligazioa bete eta gero egun atsegin bat pasa. Lagunekin egon eta hitz egin... Festa hauek neurri handi batean *meeting point* edo elkar-guneak bihurtu dituk, jende ezagun askorekin egiten baituk topo.

(Felixek eta Alberto anaiak zirkuituari ematen dioten buelta bakoitzeko milioi erdia emango dio Kutzak antolakuntzari. Hauxe zen Felixek aipatu zuen obligazioa).



**MADDALEN LUJANBIO**

Bertsolaria

**1.** —Uste dut ezingo dudala joan. Gustatuko litzaidake, baina larri samar ibiliko naiz.

**2.** —Zentzu batean bai aldatu dira horrelako jaiak. Beharbada lehen festak minoritarioagoak izaten ziren, eta gaur egun bihurtu dira urteroko festa jakinetan. Euskal Herrian bizi den jende guztiarentzako festan bilakatu da, euskaldun ez den jendearentzako festan ere bai. Bihurtu da urteroko festa eta urteroko zita. Beharbada, orain ez da hainbeste kontuan hartzen zertarako, edo zer helbururekin egin dagoen jai, eta jendea joaten da festara. Hala ere, ez zait gaizki iruditzen, kontua dirua uztea delako.

**3.** —Horrelako egunetako plana beti berdintsua izaten da. Eguraldiaren arabera, buelta emango diogu zirkuituari, eta gero jendearekin egoteko aprobetxatuko dugu. Badakit lagun piloa ibiliko dela Legazpin, eta batekin eta besteekin egongo naiz. Musika entzun eta horrelako gauzak. Azken finean betiko plana egin-got dut joaten banaiz.



**ABRAHAM OLANO**

Txirindularia

**1.** —Bai, joango naiz igandean. Gainera BTT bizikleta zirkuitua beteko dut goizean, antolatzaileek horrela eskatu didate eta.


**2.** —Ez dakit, nik gogoratzen dut Tolosan ospatu zenean Kilometroak, eta nola han gehienbat eskola arteko giroa egon zen. Hau da, umeentzako gauzak zeuden batez ere, jolasak eta horrelakoak. Orain, aldiz, umeentzako baino jende gaztearentzako festa bat bilakatu da.

**3.** —Goizean joango naiz bizikleta zirkuitua egiteko, baina eguerdirako Tolosara joan beharko dut, bazkaria baitaukat.



**LEGAZPIKO UDALA**

**KILOMETROAK  
94-ren ALDE**



**IRIMO**

**IPIÑARRIETA, 58**

**URRETXU**